Hiri Ekonomia Jasangarriaren Diagnostikoa abiarazi du Udalak, etorkizuneko plan estrategikoa prestatzeko

2026.10.30- Andoaingo Udalak Hiri Ekonomia Jasangarriaren Diagnostikoa egiteko lanak jarri ditu abian. Azterlan hau izango da datozen urteetarako udalerriko Hiri Ekonomia Jasangarriaren Plan Estrategikoa diseinatzeko oinarria.

Ekimenaren helburua udalerriko merkataritzaren, ostalaritzaren eta hurbileko zerbitzuen egungo errealitatea sakon ezagutzea da, baita horiei eragiten dieten faktore nagusiak ere: kontsumo-ohiturak, eraldaketa digitala, jasangarritasuna, hiri-ingurunearen kalitatea, lokal hutsen egoera edota sektorearen etorkizuneko erronkak.

Diagnostikoak ikuspegi integrala izango du, eta jarduera ekonomikoaren egitura ez ezik, herritarren eta kontsumitzaileen portaera, udalerriko espazio urbanoaren ezaugarriak eta tokiko gobernantza ere aztertuko ditu.

Prozesu parte-hartzailea

Prozesuak izaera parte-hartzailea izango du. Horretarako, udaleko hainbat sailen, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako enpresen, tokiko eragileen eta herritarren ekarpenak jasoko dira. Datozen asteetan inkestak, elkarrizketak eta kontraste-saioak egingo dira udalerriaren errealitatearen ikuspegi partekatua eraikitzeko.

Lanaren laguntza teknikoa Ikertaldek egingo du. Bildutako informazio guztia oinarri izango da Andoaingo hiri-ekonomiaren etorkizunerako lehentasunak eta jarduera-ildoak definitzeko.

Udalak herritarrak eta sektore ekonomikoetako eragileak prozesuan parte hartzera animatu ditu, etorkizuneko erronkei modu bateratuan aurre egiteko eta Andoaingo merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-sarea indartzen lagunduko duen estrategia partekatua eraikitzeko.